



Arartekoaren ebazpena, 2007ko irailaren 26koa; horren bidez, Donostiako Udalari gomendatu zaio, beste edozein jarduera garatu aurretik, bidezko baimenak izapidetu ditzala Kristina-Enea parkean aurreikusitako esku-hartzeak gauzatzeko.

Aurrekariak

1. Hiriko auzotar talde batek, “Parkea Bizirik” eta Haritzalde elkarteetan bilduta, erakunde honengana jo zuen 2006ko ekainaren 26an, gure irizpena eskatzeko Donostiako Udalak Kristina-Enea parkean izan duen jardueraren inguruan.

Elkarte horiek kexan jasotzen dituzten kontuak honela laburbil ditzakegu:

- Kristina-Enea parkea eta bertako jauregia birgaitzeko garatzen ari den proiektua eragin handia izaten ari da ingurumenean eta hiriko natur eta arte ondarean.
- Proiektu hau Mandasko dukearen legatuari kontrajartzen zaio; horrek Udalari utzi zion parkea eta berdegune hau erabiltzeko eta mantentzeko muga batzuk ezarri zituen.
- Proiektua izapidetu eta gauzatu den bitartean ez da ingurumen inpaktuaren ebaluaziorik edo ingurumena zaintzeko programarik egon. Lanek animalia eta landare espezie babestu batzuk desagertzea eragin dute, baita ehun urtetik gorako zuhaitzak moztea edo kaltetzea ere, esaterako, palmondo kanariar bat edo altzifre bat.
- Lanak ez dira Hiri Antolamendurako Plan Nagusian –HAPN– parke honetarako ezarri den babes mailara egokitu. Zehazki, aipatu dute lehengo bideak aldatu direla eta espazio urbanizatu berriak sortu direla; guardaren etxea eraitsi omen da eta, jatorrizko urmaela suntsitu ondoren, beste txikiago bat egin omen da. Horrek guztiak parkeko zuhaitzia desitxuratu du.
- Jauregian aldaketak egin dira eta horiek ez dute errespetatu bere nortasun arkitektonikoa.
- Lanen proiektua onartzeko jarraitutako prozedurak ez ditu errespetatu HAPNan aurreikusitako izapideak; jendaurreko informazio aldirik ere ez



du izan alegazioak aurkeztu eta, horrela, herritarren parte-hartzea sustatzeko.

2. Erreklamazioa jaso ondoren, planteaturiko gaiei buruzko informazio egokia eskatu zion Arartekoak Udalari, kexa behar bezala izapidetzeko xedez. Zehazki, elkarteek emandako iritziekiko zuen ikuspegiaz gain, honakoak ere eskatu genizkion Udalari: proiektu hau onartzeko egindako izapideak, aurreikusitako burutzapen fase desberdinei buruzko xehetasunak eta espedientean jasota egon daitezkeen txosten tekniko eta juridikoak, hirigintzara eta ingurumenera egokitzen dela ziurtatzeko.

Jasotako informazioak adierazten digu, parkea hobetu aurreko fase gisa, Mandasko dukearen jauregia eta kapera birgaitu direla, 3,5 milioi euroko zenbatekoarekin.

Bestalde, adierazi digute Tokiko Gobernu Batzarrak, 2005eko uztailaren 8ko bilkuran, “Kristina-Enea parkean bideak, saneamendua, euri uren bilketa eta hiri altzariak hobetzeko burutzapen proiektua onartu zuela”, 2.767.272,07 euroko aurrekontuarekin. Proiektu hori “Agence Ter” enpresak idatzi zuen, “Kristina-Enea parkea berritu, birgaitu eta egokitzeko proiektua” dela eta, bere garaian egin zen Ideien Nazioarteko Lehiaketaren talde esleipendun gisa.

Hala ere, ez genuen inolako dokumentazio edo informaziorik jaso kasuan kasuko proiektua edo proiektuak izapidetzeko prestatutako txosten tekniko eta juridikoei buruz. Erantzun idazkiak zioen obra horiek parke honetarako HAPNak aurreikusitako babes maila errespetatzen zutela, baina ez zuen horren inguruko txostenik ekartzen.

Bestalde, ez ziguten ezer esan proiektu orokor hori abiarazteko aurreikusitako faseen inguruan.

Nolanahi ere, ezarritakoan oinarrituta, Hiri Antolamendurako Plan Nagusiak laugarren tituluan, hirigintzako ondare katalogatua babesteko arauetarako buruzkoan, garatzen zuen araubidearen inguruko lehenengo hausnarketa egin genuen. Babes araubide hori aztertuta, bai oro har bai abian jarritako berariazko proiektuetako bakoitzean aurreikusitako esku-hartzeetarako buruzko txosten tekniko eta juridikoak ekartzeko eta horiek planteamendu orokorrean jasotako babes araubidera egokitzen ote ziren egiaztatuzko eskatu genion Udalari.



3. Donostiako Udalak bigarren informazio eskaerari erantzun zion eta dokumentazio gehiago ekarri zuen.

Aipatutako kontu desberdinak aztertzeke, hainbat dokumentu erabili ditugu, bai Udalak hasierako gure informazio eskaerari nahiz informazio osagarriaren ondorengo eskaerari erantzunez bidalitakoak bai erreklamazioa aurkeztu duten elkarreke ekarritakoak. Horrela, laburtuz, honako dokumentu hauek aztertu ditugu:

- Bideen hobekuntzari, saneamenduari, euri uren bilketari eta hiri altzariei buruzko betearazpen proiektua (I. fasea), 2005eko maiatzekoa, TER Agentziak egina.
- Udaleko zuzendari juridikoak Mandasko dukearen legatuari buruz egindako txostena, 2005eko ekainaren 22koa.
- (...) udal arkitektoaren txostena, 2005eko ekainaren 22koa, betearazpen proiektuaren ingurukoa.
- (...) Proiektu eta Obretako zuzendariaren txostena, 2007ko urtarrilaren 12koa, arestian aipatutako betearazpen proiektuaren ingurukoa.
- Udaleko Hirigintza zuzendariaren txostena, 2007ko urtarrilaren 16koa, parkean egindako lanei buruzkoa.
- (...) Gipuzkoako Foru Aldundiko Ondare Historiko Artistikoko arkitektoak egindako txosten teknikoa, 2007ko urtarrilaren 30ekoa, Kristina-Enea parkean egindako lanen izaerari buruzkoa.
- Donostiako Udalaren Hiri Antolamendurako Plan Nagusia. Zehazki, Katalogatutako Hirigintza Ondarea babesteko Arauak (I. liburua, IV. titulua, 4. artikulua) eta "EG.19 Kristina-Enea" HIErako arau berezia.

Informazio horretan oinarrituta, balorazioa egin genuen eta Kristina-Enea parkean Udalak garatutako jarduerari buruz egin genituen gogoetak helarazi genizkion Udalari. Horrela, gure ustez, Udalak nahitaezko baimena eskatu behar zion berehala Foru Aldundiko Kultura Departamentuari bukatzeke zeuden lanen faseetarako eta ez lieke horiei ekin behar aldeko baimena lortu arte.

Gainera, gure iritziz, Udalak Foru Aldundira bidali beharko lituzke jada gauzatu diren edo gauzatzen ari diren lanen proiektuak, egindako jardunak egiaztatzeke, katalogatutako elementuetan gauzatutako esku-hartzeak bat ote datozen zehazteke eta/edo, bidezkoa balitz, kasuan kasuko zuzenketak egiteke.



Balorazio hori bat dator, funtsean, gomendio honen oinarri diren gogoetekin. Hortaz, esandakoak alferrik errepikatzea saihestuko dugu eta gogoeta horien edukia izango dugu gogoan.

4. Udaleko Hirigintza zuzendariak komunikazioa bidali digu eta horren bidez jakinarazi digu, 2007ko urtarrilaren 8an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusira Kristina-Enea parkea Loiolako Erriberekin elkartzeko pasabidearen burutzapen proiektua eta parkeko bideak, saneamendua, euri uren bilketa eta hiri altzariak hobetzeko burutzapen proiektua bidali zirela; azken lan hauek jada gauzatuta daude.

Izan ere, azpimarratu du, “*berrikuspen*” horri erantzunez, Kultura Zuzendaritza Nagusiak idazkia bidali zuela. Foru Aldundiko Kultura zuzendari nagusiaren idazkiak, 2007ko apirilaren 4koak, Udalak 2007ko urtarrilaren 8an bidalitako komunikazioaren inguruko hainbat kontu aipatzen zituen. Zehazki, honakoa esaten zuen:

Lehenik eta behin, adierazi zuen ez zekiela Donostiako Udalak Kristina-Enea parkeko lorategietan egindako esku-hartzeak baimentzeko eskabiderik bidali zuenik, nahiz eta ulertzen zuen, idazkiaren izaera ikusita, hori parkea Loiolako Erriberekin elkartzeko pasabidearen Proiekturako baimen eskaeratzat har zitekeela, jada burutu baita Kristina-Enea parkeko bideak, saneamendua, euri uren bilketa eta hiri altzariak hobetzeko Proiektua.

Pasabidea egiteko proiektuari dagokionez, Kultura zuzendariak aipatu du hainbat erakundek eta pertsonak jo dutela Kultura Zuzendaritza Nagusira proiektuaren inguruko ordezeko aukerak proposatzeko parkearen natura- eta paisaia-balioak mantentzeko begira, proiektuan aurreikusitakoari jarraiki, zenbait zuhaitz botako baitira. Uste du ordezeko proposamen horiek zuhaitzak kontserbatzearekin erlazionatutako arazoak konpontzen laguntzen dutela. Ondorioz, honakoa adierazi digu:

“Horregatik, gure helburuak parkeak historia, arte eta naturari dagokienez dituen balioak zaintzea izan behar duenez, Donostiako Udalari eskatzen diogu erakunde eta pertsona horiek aurkeztutako aukerak azter ditzala, horiek betearazpen proiektuan barneratze aldera, natur ondareari kalterik ez eragiteko. Azkenik, natur ondarea zaintzearen ikuspegitik, nire ustez egokiena da Donostiako Udalak parke horretan egin beharreko esku-hartze oro atzeratzea, udal horrek Kristina-Enea parkea dela-eta fauna, flora eta biodibertsitateari buruz



Aranzadi Zientzi Elkarteari agindu dion azterlanaren emaitzak izan arte, horren ondorioek erabakiak hartzen lagunduko dutelakoan.”

Idazki horretan oinarrিতuta, Hirigintza zuzendariak aipatu du bilera egiteko eskatu duela aurkeztutako aukerak batera aztertze aldera, nahiz eta oraindik Foru Aldundiak karguak noiz berritu zain dauden bilera egiteko.

Gure iritziz, erantzun horrek ez du ezer finkatzen Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuaren nahitaezko baimena lortu artean Donostiako Udalak parkean egin beharreko esku-hartze oro eteteko proposamenaren inguruko jarreraren inguruan.

Hori guztia dela eta, eta kontuan izanda, gainera, kexa aurkeztu zenetik denbora asko igaro dela eta parkean gauza daitezkeen jarduerak itzulezinak izan daitezkeela, egokia iruditu zaigu zuri honako gogoeta hauek helaraztea:

Gogoetak

1. Kexak aurkeztu dituen kontu desberdinen artean, lehenik eta behin Mandasko dukearen legatua aipatu behar dugu. Erreklamatzailleek ziotenez, Udalak Kristina-Enea parkean garatu zuen jarduerak ez zuen legatua errespetatzen.

Legatu horrek zenbait baldintza ditu eta horiek eraginkortasun juridikoa izan dezaten testamentugileak egindako borondate adierazpena osatzen dute. Baldintza horiek moduzat kalifikatzen dira.

Udaleko Lege zuzendariak egindako txostenak honakoa ezartzen du ondorioetan:

- Legatuan ezarritako moduek ez dute eraginik “guardaren etxearen” eraispenean.
- Nolanahi ere, beharrezkoa da legatua eta ezartzen dituen betebeharrak gure garaira egokituta interpretatzea.
- Jada igaro dira Tokiko Erakundearen Ondasunei buruzko Erregelamenduan –ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua– aurreikusitako hogeita hamar urteak oinordetzan utzitako ondasuna xede jakin bati lotuta izateko udal administrazioak zuen betebeharra bete dela ulertzeko eta, beraz, esan daiteke gaur egun ondasuna guztiz erabilgarri dagoela, jabetza publikoa izatearen kaltetan izan gabe.



Gure iritziz, egokiak dira analisi juridikoan bildutako gogoetak eta ondorioak eta, beraz, legatua eskuratu eta erabiltzeko tituluaren alderdiari dagokionez, uste dugu Udalak ez duela inolako eragozpenik parkean egoki irizten duen neurrian jarduteko, betiere, jabari publikoko ondasunei aplikatzen zaien arautegiak ezartzen dizkion mugen barruan.

2. Bigarrenik, proiektua izapidetzerakoan eta garatzerakoan gauzatutako edo aurreikusitako jarduerak ingurumen inpaktuaren ebaluazioa edo ingurumena zaintzeko programa behar ote zuten azaldu genuen, erreklamatzailleek nahi zuten moduan.

Kristina-Enea parkea hiri lurzoruan kokatuta dago eta “hiri parketzat” jota dago. Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Legeak ingurumen inpaktuaren baterako ebaluazioaren prozedurari lotuta dauden plan eta proiektuen kasuak ezartzen ditu 1 A eta B eranskinetan. Aipatu ezaugarriak dituen parke bati dagozkion jardunak ez dira kasu horietako batean ere sartzen.

Bestalde, erreklamatzailleek adierazi dute animalia eta landare espezie babestu batzuk desagertu egin direla. Horri dagokionez, zenbait zehaztasun egin behar ditugu. Euskal Autonomia Erkidegoko natura babesten duen ekainaren 30eko 16/1994 Legeak arriskuan dauden espezieen katalogoa arautzen du 47. artikuluan eta hurrengoetan. Gainera, 50.3 artikulua dio, animalia edo landare espezie, azpiespezie edo populazio bat katalogatu ondoren, kudeaketa-plana idatziko dela eta, bertan, arriskuak ezabatzeko beharrezko jarraibideak eta neurriak bilduko direla, populazioak lehenera ekarri, kontserbatu edo haz daitezten eta beren habitata zaindu eta manten dadin sustatze aldera. Gainera, plan horiek natur gune babestutzat hartu ahal izango dituzte espezie babestuaren lurralde oinarria diren areak.

Hortaz, egoki iritziz gero, eta dagoen informazio egiaztatua ikusita, kasuan kasuko erakundeetan sustatu beharko litzateke aurreko atalean aipatutako kudeaketa-plana idaztea eta bertan bildu beharko lirateke Kristina-Enea parkea Katalogoko espezieetakoren baten lurralde oinarria baldin bada hartu beharko liratekeen neurriak.

Horren guztiaren kaltetan izan gabe, azpimarratu behar da, Udalak aipatu duen bezala, Aranzadi Zientzi Elkarteari eskatu zaiola zonako floraren eta faunaren azterketa egiteko; horrela, beharrezko informazioa lortu ahal izango dugu,



egun dauden natur balioen gaineko neurri bereziak hartzeko eta dagozkion proposamenak egiteko. Aurreikuspenen arabera, azterketa hori datozen bi urteetan egingo da.

Laburbilduz, Udalari bidali genion azken jakinarazpenean aipatu genuen ez genuela bestelako daturik area honetan gauzatu diren edo gauzatzeko ari diren esku-hartzeek gune honetan bizi daitekeen floran eta faunan izan dezaketen eragina ezagutzeko. Hala ere, gure ustez, arrazoizkoa izango zatekeen Udalak eskatu zuen azterketa parkean lan jakin batzuk egin aurretik prestatu izan balitz, hala eginda, gune horretan garatutako edozein esku-hartzek bertako natur balioak eta hartu beharreko neurriak kontuan hartuko zituela bermatuko baitzatekeen.

Horren ildotik, eta laugarren aurrekarian azaldu dugunaren arabera, Aldundiko Kultura zuzendariak Udalari bidali zion jakinarazpenak ere kontu hori azpimarratzen zuen eta egokiena esku-hartze oro etetea omen zen, azterlan horren emaitzak izan arte.

3. Puntu honetan komeni da jada Hiri Antolamendurako Plan Nagusian aurreikusitako hirigintza-erregimena aztertzea eta baita egindako lanak edo izapidetze bidean diren proiektuak horretara guztira egokitzen ote diren ikustea ere.

Area honi dagokion arau bereziak, bere antolamendu irizpide eta helburuen artean, egungo parkea “hiri parke” finkatzea zehazten du eta, bertan, egun dauden instalazioak hobetzeko eta egokitzeko lanak bakarrik egin ahal izango dira. Oinezkoentzako bazter-bide bat ere zabalduko da “Loiolako Erriberak” eta “Mundaitz” – “Urumea pasealekua” zonetan aurreikusitako igarobideak lotzeko.

Jarduteko programak dio ez dela inbertsio orokorreko ekintzarik proposatu. Oinezkoentzako bidea zabaltzeko lanak Udalaren esku utziko dira, “obra-proiektu” arrunt bakarraren zati gisa; horren baitan egingo da, baita ere, “Mundaitzeko” eta “Urumea pasealekuko” igarobidea.

Bestalde, Planak honako elementu hauek barneratzen ditu katalogoan, I. babes mailarekin:

- “Monumentu multzoak” (I. maila): Erreginaren parkea, jauregia eta ontziralekua “Kristina-Enea” parkean.



- Parke eta lorategi aipagarriak (I. maila): “Kristina-Enea” parkea.
- Zuhaitz eta zuhaitz multzo bereziak (I. maila): “Kristina-Enea” parkean dagoen hainbat zuhaitzen zerrenda.

Hortaz, arean aurreikusitako jardunek bai arau bereziko determinazioak bai Plan Nagusiko determinazioen agiri osagarri gisa emandako katalogoari dagozkionak hartu beharko dituzte kontuan eta bi dokumentuek bat egin beharko dute aurreikusitako hirigintza-erregimena definitzerakoan.

3.1. Monumentu multzoa

Kategoria honetan aparteko balio historiko eta arkitektonikoa duten edo inguruko hiriaren edo lur eremuaren hiri irudian eta memoria historikoan elementu ordezkaezinak eta funtsezkoak diren eraikinak barneratzen dira. Horien artean, “monumentu multzotzat” hartzen dira multzo arkitektoniko unitarioa eta identifikagarria osatzen duten eraikinak, halaber unitarioa den proiektu bidezko esku-hartzearen ondorio.

Eraikin horietan ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzeko esku-hartzeei buruzko uztailaren 17ko 189/1990 Dekretuaren I. eranskinean definitzen den “kontserbazioko zaharberrikuntza” egin daiteke (egun, dekretu horren ordezkabenduaren 30eko 317/2002 Dekretua dago). Gara daitezkeen esku-hartzeen garrantzia eta, zehazki, definitu diren “A”, “B” eta “C” tipologietako baterako adskripzioa, kasuan kasu, arau bereziak, Plan Bereziak edo Udalaren eta Foru Aldundiaren ebazpenek zehaztuko dituzte. Monumentu multzoetan, hobekuntzako eta berrikuntzako behin-behineko esku-hartzeak, nolahi ere, modu unitarioan egingo dira eta xehetasunezko eraikuntza-elementuen materialak eta diseinua, hots, “multzoaren” batasuna, errespetatu beharko dute, baita horien tratamenduan ere.

Nolahi ere, 4.3.3 atalak dio eraikin horiekin zerikusia duten eraikuntzako lizentziak jaso ahal izateko aurretik Foru Aldundiaren txosten loteslea aurkeztu behar dela.

Ekarrirako informazioan oinarrituta, Mandasko dukearen jauregia eta kapera parkean hobekuntza-lanak egin aurretik birgaitu ziren, (...) arkitektoak idatzitako proiektuaren arabera; horren kostua 3,5 milioi eurokoa izan zen. Ez da aipatzen Foru Aldundiaren txosten loteslearen izapidea bete zenik. Ez dago informaziorik, ezta ere, gauzatutako lanak esku-hartzeen zein tipologiatan sartu behar diren zehazten duen Udalaren ebazpenaren inguruan.



3.2. Parkea

Katalogoko 4.5.2 b) artikulua, “I. mailako” parke eta lorategietarako, horien egungo egoeran mantendu behar direla ezartzen du eta horietan ez dela aldaketarik egingo trazadura orokorrari edo zuhaitzen eta lorategien oinarritzko antolaketari dagokienez, dokumentazio historikoan oinarrituta, horien jatorrizko ezaugarriak berreskuratuzera bideratuta ez baldin badaude.

Parke eta lorategi horietan egiten diren eta alderdi horietan eragina duten ohiko mantentze lanez gaindiko esku-hartzeak garatzeko, Foru Aldundiko Kultura Departamentuaren baimena behar da.

Hortaz, bidezkoa da zein motatako lanak egin diren aztertzea, horiek Plan Nagusiko determinazioekin bat ote datozen ikusteko.

Udaleko Proiektu eta Obretako zuzendariaren txostenak dio, mantentze lanak egin diren arren, barrutia pixkanaka hondatzen joan dela eta, beraz, ezinbestekoa zela saneamendu sakona egitea. Ildo horretatik, aipatzen du hondamen mailak ez ziola soilik bidexken gainazalari eragiten, baizik eta baita horien egiturari ere, eta, beraz, beharrezkoa izan dela horiek guztiz altxatzea, konfigurazioa oinarritik erabat berregiteko.

Txostenak aipatzen dituen esku-hartzeen artean, honakoak azpimarratu behar dira:

- Bideen trazaduraren inguruko esku-hartzeak egin dira, horiek irisgarritasunaren arloan indarrean den arautegira egokitzeko, betiere, egungo konfigurazioa ahalik eta gehien errespetatuz.
- Drainatze sare egokia sortu da; horretarako, lur mugimendu garrantzitsuak egin behar izan dira. Behin lanak amaituta, lurrak, soropilak eta landaketek jatorrizko itxura berreskuratu dute.
- Euri urak bildu eta gordetzeko sistema sortu da ureztatzeak egiteko.
- Urmaela erabat berregin da eta hodi sare berria sortu da, hura drainatze sistema berriaren bidez bildutako euri urekin elikatzeke. Urmaelaren ertzak zertxobait aldatu dira: inguruko eskudela kendu da eta, horren ordez, uretako populazioen zonak jarri dira; egoteko zona txiki bat ere sortu da; eta ahateak bertara sartzeko eremua berriro definitu da.
- Argiztapen, ur hornidura eta saneamendu sareak berritu dira eta elementu berriak jarri dira, besteak beste, iturriak eta kale-argiak.



- Zuhaitzian ere hainbat esku-hartze egin dira: bideak berritzeko lanen ondorioz, zenbait ale lekuz aldatu dira; beste batzuk kendu egin dira, zehazki, eite txikiko zuhaitzak eta balio botaniko gutxiko zuhaixkak. Horrela, hainbat esku-hartze aipatzen dira honakoak egiteko: kaperara heltzeko arrapala jartzeko, Gereziondoaren plaza eta Elipsearen plaza sortzeko, urmaela berregiteko eta goiko zelaia berritzeko.

Bestalde, gure esku-hartzearen ondorioz Hirigintza zuzendariak egin duen txostenak dio, nahiz eta aipatutako obrek bidearen trazadurako zati jakin batzuetan bakarrik izan eragina, ez dela parkearen trazadura orokorra ukitu, ezta zuhaitzen eta lorategien oinarrizko antolaketa ere, eta, beraz, lan horiek egiteko, ez zela beharrezkoa Foru Aldundiko Kultura Departamentuaren baimena.

Orobat, Foru Aldundiko Ondare Historiko Artistikoko arkitektoak, Biltzar Nagusietako Eskaeretakako eta Biztanleekiko Harremanetakako Batzordeak hartutako erabakia betez, lanen izaera aztertu du bere txostenean. Bertan dio parkean egindako lanak mantentze jardun gisa edo eraldatze edo urbanizatze jardun gisa sailka daitezkeela. Horrela, garatutako urbanizatze jardunei aipamen eginez, besteak beste, honakoak azpimarratzen ditu: lur naturalaren profila eta antolamendu orokorra aldatzeko lur mugimenduak egitea, zoladurak berritzea, harrizko nahiz metalezko elementuak eraikitzea (muruak, hormak, eskailerak), urmaelaren forma eta diseinua aldatzea, sarbide berriak egitea, lauza-zoladura duten behatokiak edo egoteko zonak sortzea, etab.

Azkenik, aurkeztutako proiektua, Ter Agentziak egina, aztertzen badugu, argi eta garbi ikus daitezke aurreko paragrafoan aipatutako txostenak adierazten dituen eraldatze jardunak. Adibide gisa, eta bideak bakarrik aipatzearen, bide nagusia Belvedere bidearekin elkartu arte luzatu da; azken hori ere luzatu egin da eta bere trazadura aldatu da; Gereziondoaren plazatxora igotzeko bidea bete da, hormigoizko maila aurrefabrikatuak dituen eskailera jarri da eta, iparraldean, hormigoizko murrua eraiki da.

Egindako lanen izaera zehazteko, gure azterketan, batetik, Plan Nagusian faboratutako lanak eta, bestetik, baimen daitezkeen lanak gauzatzeko jarraitu beharreko prozedura bereizi behar ditugu. Horrela, esan behar da arearen arau bereziak faboratzen dituen lanek (igarobideak, bi igarobideak lotuko dituen oinezkoentzako bazter bidea, hobekuntza-lanak eta egungo instalazioen egokitzapena egiteko) Katalogoan zehazten den parkearen trazadura orokorra edo bertako zuhaitzen eta lorategien oinarrizko antolaketa errespetatu beharko



dituztela, eta ez dela horiek aldatzea onartuko, horien jatorrizko ezaugarriak berreskuratzen bideratuta ez baldin badaude.

Baina, arau bereziak aipatu esku-hartzeak aurreikusten dituen arren, parkea Katalogoan sartuta dagoenez, gune horretan edozein esku-hartze egin ahal izateko, prozedura berezia jarraitu behar da eta, horren baitan, foru baimena eskatu behar da udal proiektua onartu aurretik, **“ohiko mantentze lanak”** direnean izan ezik. Gure ustez, kontzeptu horrek berak garbi uzten du zeinen murriztaileak diren jardun horiek; hau da, ohikotzat har daitezkeen mantentze lanak izan behar dute.

Puntu honetan, Hirigintza zuzendariak dio Foru Aldundiko Kultura Departamentuaren esku hartzeko aurreikuspena ez datorrela inolako arautegi sektorialetik; aitzitik, bere garaian, Udala kultur ondarearen arloan administrazio sektorial eskuduneko agintarien iritzari bere borondatez men egiten ziola ulertu zen. Alabaina, borondate hori egongo balitz ere, esku-hartze hori Planean jaso ondoren, nahitaez bete behar da, baita Udalari berari dagokionez ere, eta, beraz, ezin da prozedura hori saihestu, aldatzen ez duen bitartean.

Gainera, ezin ahatz dezakegu, elementu bat katalogoan sartzen bada, hori arte, kultur, historia, ekologia edo naturaren ikuspegitik interesgarria delako egiten dela eta ez dela zehatz-mehatz Katalogoko elementu edo eraikin bakoitzerako definitzen zein alderdi espezifikoko babestu nahi diren. Eginkizun hori “babes plan bereziaren” esku uzten da, nahiz eta, kasu honetan, ez den halakorik egin; plan horien helburua esku hartzeko aukerak xehetasunez arautzea da. Nolanahi ere, bien bitartean, Planak babes neurri gisa aurreikusi du, aipatu kasu guztietan, jardun oro Foru Aldundiaren baimenera makurtuko dela.

Gauzatutako lanak, arestian aipatutako txosten desberdinetan jasota geratu diren bezala, parkearen antolaketa orokorrean eragina izan dute eta, beraz, nekez har daitezke ohiko mantentze lan gisa, ezta kontzeptua zentzurik zabalenean aplikatuta ere, saneamendu sakona egin behar izatearen ondorioz. Horren ildotik, aipatu dugun txosten loteslea egitea eskatzeko izapidea egin behar zen nahitaez.

Hirigintza zuzendariaren txostenak dio gauzatutako lanek ez dutela ukitu ez parkearen trazadura orokorra ez bertako zuhaitzen eta lorategien oinarritzko antolaketa. Alderdi hori Foru Aldundiak baloratu beharko zukeen, Plan Nagusiak horri eman baitio eskumena, egoki iritziz gero, katalogatutako



gunean proiektatutako lanak baimentzeko, Udalak horiek onartu eta gauzatu aurretik.

Azkenik, zuhaitzei dagokienez, adierazi digute ez dela ukitu “katalogatutako” aparteko zuhaitzetako bat bera ere eta, beraz, gure ustez, erreklamazioa aurkeztu duten elkarten kexa, zuhaitz jakin batzuk ukitu izanari buruzkoa, gauzatutako lanen inguruan esandakoa bezalaxe aztertu behar da, parkean garatutako esku-hartzeek, bai lanen euren eraginagatik bai landaketen programagatik, kaltetu egin izan baitezakete lorategien oinarrizko antolaketa.

Laburbilduz, gure ikuspegitik, trazadura orokorra edo lorategien oinarrizko antolaketa errespetatzen ez duen jardun oro ez litzateke Planarekin bateragarria izango. Parkean gauzatutako jardunek ohiko mantentze lanak gainditzen dituzte eta, beraz, izapidetutako proiektuak trazadura orokorra eta lorategien oinarrizko antolaketa errespetatzen ote dituen zehazteko, Foru Aldundiko Kultura Departamentuaren baimena behar izango litzateke, Udalak proiektua onartu aurretik.

Hori guztia dela eta, erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11 b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, honako gomendio hau egiten da:

25/2007 GOMENDIOA, irailaren 26koa, Donostiako Udalari egina.

Beste edozein jarduera egin baino lehen, eta kontuan izanik Hiri Antolamendurako Plan Nagusiak zehazten duen derrigorrezko txostena loteslea dela, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuaren bidezko baimenak izapidetu ditzala, Kristina-Enea parkean aurreikusitako esku-hartzeak gauzatze aldera.